



Oinarrizko informazioa

Plan Estrategikoa
2016-2020





AURKIBIDEA	ÍNDICE
1.- 16/20 Estrategi Plana 1.1.- Izaeraren funtsezko ezaugarrien adierazpen nagusiak 1.2.- Dokumentu nagusiak: <ul style="list-style-type: none">• Kalitatea• Eginkizuna• Ikuspena• Ikastolako balioak• Estrategi planaren ildoak	1.- 16/20 Plan Estratégico 1.1.- Identidad y características 1.2. – Documentos oficiales: <ul style="list-style-type: none">• Calidad• Misión• Visión• Valores• Línes estratégicas



4.- 2013-2016 ESTRATEGI PLANA/ *Plan Estratégico 2013-2016*

4.1.- Oinarrizko dokumentu nagusiak eta ildo estrategikoak / **Documentos oficiales y líneas estratégicas.**

IZAERAREN FUNTSEZKO EZAUGARRIEN ADIERAZPEN NAGUSIAK.

Herri Ametsa Ikastolaren Hezkuntza Proiektuan gure izaera definitzerakoan, Ikastolen 2009ko urtarrilean VI. Batzar Nazionalean adostu zen *Ikastolaren Izaera* dugu Hezkuntza Proiektuaren erreferentzi markoa.

- Ikastola eskola entitatea da, euskal gizarteak hezkuntzan ipintzen dituen ideien eta itxaropenen adierazpenetako bat,
- entitate euskalduna da, euskararen eta euskal kulturaren transmisio, garapen, normalizazio eta sustapenarekin guztiz konprometitua, euskalduntasunetik kultura unibertsalera zabal dadin,
- erakunde plurala da: Euskal Herrian dauden ideia, portaera sozial, politiko, filosofiko eta erlijioso guztiei elkarbizitzazko errespetu osoa agertzen die,
- inolako diskriminaziorik gabe, edozein maila kultural, sozial, ekonomiko, sexu eta arrazatako gizakiei zabalik dago, edonori aukera bera eskaintzen dion eskola orekatzailea izanik,
- hautabide demokratikoa egin du: gurasoek, langileek, laguntzaileek, ikasleek, administrazioko ordezkariak... denek ere esku hartu behar dute haren kudeaketan eta eraginkortasunez lagundu funtzionamenduan,
- haren oinarrizko ardatzetako bat autonomia da, hau da, eskumen zabalak eta erabakiak hartzeko ahalmena du,
- herriari dagokion neurrian eta hari atxikirik segitu nahi duen heinean, euskal eskola da, Euskal Herriaren eskola nazionala eratzeke bokazioa duena.
- ikastolen kolektiboarekiko elkartasuna duen unitatea da eta Euskal Herriko ikastolen sarea garatzeko eta bertako partaide eraginkor izateko konprometitua da.
- irakasleak, hezkuntza konpetentzia orokorrak bere eginkizunetan txetatzen ditu oinarrizko konpetentziak erdiesteko asmoz.
- Hezkuntza-proiektu hori hezkuntza-komunitateak onetsi eta eguneratua da, ikasleek, beren familiekin eta langileek, onartuak dituzten gobernu- eta funtzionamendu-organoen bitartez, partaidetza eragilearekin bere garapenean parte hartuz.

IDENTIDAD Y CARACTERÍSTICAS

Para definir nuestro carácter en el Proyecto Educativo de Herri Ametsa Ikastola, el marco de referencia es el documento *Ikastolaren Izaera*, acordado en la VIª Asamblea Nacional de Ikastolas, celebrada en enero de 2009.

- La ikastola es una entidad escolar, una de las opciones en la que la sociedad vasca ha depositado su esperanza en el ámbito educativo.
- Es una entidad euskaldun, totalmente comprometida con la transmisión, desarrollo, normalización y fomento del euskara y la cultura vasca, con el fin de que se extienda hacia la cultura universal.
- Es una institución plural: muestra pleno respeto a todas las ideas, comportamientos sociales, políticos, filosóficos y religiosos de Euskal Herria.
- Está abierta a las personas de cualquier sexo, raza, nivel cultural, social, económico, sin ningún tipo de discriminación, al ser una escuela que ofrece a todos la misma oportunidad.
- Su modo de funcionamiento es democrático: las familias, el personal, sus auxiliares, el alumnado, los representantes administrativos... cualquiera debe participar en su gestión, así como colaborar con eficacia en su gestión.
- Uno de sus principales ejes es la autonomía, es decir, cuenta con amplias competencias y con la capacidad de tomar decisiones.
- En la medida que se debe al pueblo y que desea seguir comprometido con él, es una escuela vasca, cuya vocación es la de consolidar la escuela nacional de Euskal Herria.
- Es un ente solidario con el colectivo de ikastolas y comprometido con el desarrollo de la red de ikastolas de Euskal Herria, así como en ser un eficaz miembro suyo.
- Sus docentes incluyen las competencias educativas generales en su labor diaria, a fin de lograr competencias básicas.
- La comunidad educativa reconoce y actualiza el Proyecto Educativo mediante los Órganos de Gestión y Gobierno, que son aceptados por el alumnado, sus familias y el personal, participando éstos eficazmente en su desarrollo.



Herri Ametsa ikastolaren KALITATEAREN definizioa (2014)

Herri Ametsa Ikastolan baloreetan oinarriturik dagoen hezkuntza integrala da **kalitatea**, bere inguru hurbilean txertatua eta Euskal Herria ardatz nagusia duena. Hezkuntza integral horretan, helburuak garbiak eta adostuak izateaz gain, hura aurrera eramateko eta Ikastolak irudi erakargarria izan dezan, irakasleen prestakuntza etengabea eta profesionaltasuna bultzatzen ditu; aldi berean, langileen arteko giro onari eta eraginkortasunari garrantzia emanez. Hori guztia aurrera eramateko, hau da, prozesuen kudeaketa egokirako, Hezkuntza Komunitatearen estamentu guztien partaidetza bultzatu eta bermatuko duen lidergo garbia premiazkoa da.

Herri Ametsa ikastolaren EGINKIZUNA (2014)

- Ikastolen mugimenduak sortutako erakunde soziala da Herri Ametsa Ikastola.
- Gurasoen Hezkuntza Kooperatiba da eta Hezkuntza Komunitatearen inplikazioa Ikastolaren egitasmoetan dago. Gurasoen Hezkuntza Kooperatiba da eta Hezkuntza Komunitate dinamizatzailea du: irakasle, guraso, ikasle, monitorea, zerbitzu eta administrazioko langileak. Guztiek Hezkuntza Proiektua aurrera ateratzeko konpromisoa dute, ikaslea ardatz duen kalitatezko hezkuntza eskainiz.
- Errealitate historikoan, sozialean, politikoan, ekonomikoan eta kulturean integratuta dago.
- Herri Ametsa Ikastola ikastetxe euskalduna da, askotarikoa eta integratzailea, eta politika eta erlijio ororekiko independentzia du.
- Ikastolaren xedea hauxe da: heziketa bukatutakoan, geure Curriculumaren ildoaren arabera, ikasleak gazte euskaldunak, eleanitzak, arduratsuak, autonomoak, kritikoa, solidarioak, ingurumenarekin konprometituak, demokratikoa, parte hartzaileak eta kulturaz ongi jantziak izatea.
- Proiektuan konprometitutako talde profesional egonkor eta prestatua du Ikastolak, egitasmo berritzailea duena eta teknologia berriak integratzen dituen metodologia motibatzailea, eraginkorra eta esanguratsua darabilena, aniztasun eta adinei egokituia.

Definición de CALIDAD (2014)

En Herri Ametsa Ikastola, definimos la **calidad** como una educación integral basada en los valores, insertada en su entorno próximo y que tiene a Euskal Herria como eje principal. Esa educación integral, además de tener objetivos netos y convenidos, garantiza que el alumnado adquiera las competencias básicas e impulsa la constante preparación y profesionalidad del profesorado, a fin de hacerla avanzar y que la Ikastola tenga una imagen de prestigio; a la vez, da importancia a la buena convivencia entre el personal y a su eficacia. Para llevar todo eso adelante, es decir, para la correcta gestión de los procesos, es necesario un liderazgo claro que impulse y garantice la participación de todos los estamentos de la Comunidad Educativa.

MISIÓN de Herri Ametsa Ikastola (2014)

- Herri Ametsa Ikastola es una institución social creada por el movimiento de las ikastolas.
- Es una Cooperativa Educativa de padres y madres, y la implicación de la Comunidad Educativa está en sus planes. Cuenta con una Comunidad Educativa dinamizadora: el alumnado, sus familiares, docentes, monitores y el personal de administración y servicios. Todos ellos han adquirido el compromiso de hacer avanzar el Proyecto Educativo, proporcionando una educación de calidad cuyo eje es el alumno.
- Está integrada en su realidad histórica, social, política, económica y cultural.
- Herri Ametsa Ikastola es un Centro Educativo euskaldun, plural e integrador, independiente de todo credo político y religioso.
- El objetivo de la Ikastola es el siguiente: que al terminar los estudios, y según las líneas de nuestro Currículo, nuestros alumnos sean jóvenes euskaldunes, plurilingües, responsables, autónomos, críticos, solidarios, comprometidos con el medio ambiente, democráticos, participativos y bien formados culturalmente.
- La Ikastola cuenta con un comprometido grupo de profesionales, preparado y estable, con deseos innovadores y que se vale de una metodología motivadora, eficaz y significativa, adaptada a las diversidades y edades, y que integra las nuevas tecnologías en su trabajo.



Zer lortu nahi dugun: etorkizuneko IKUSPEGIA (2014)

1.- Bilakaera Demografikoaren kurbaz eta ikasleen eskaeraz, honako aztergaiak ditugu:

- *egokitzapenaren berrikuntza etengabe eta planifikatua (aurrekontua),*
- *geure ingurunearen berri ematea, abantailak aurkitu eta adieraztea eta,*
- *geure buruaren kalitatea ezagutaraztea, emaitzen berri emanez.*

2.- Ikastetxearen eta erakundearen finantza-egoerari dagokionez, ekonomia garbia eta gardena dugu, edozein gastu kudeatzeko gai dena; hala ere, beharrei aurrea hartu behar diegu, aurrekontuak eratuz eta diruaren erabilpena hierarkizatuz; era berean, ahalik eta diru iturri gehienak lortu behar ditugu.

3.- Irakaskuntza prozesuari buruzko hezkuntza ikerketak eta irakasleak prestatzea eta eguneratzea. Horretarako, irakasleek eguneratuta egon behar dute, planifikazio egokia eginez, hau da, beharrak kontuan izan behar dituzte, etorkizunari begira; hori dela eta, eguneratzearen aplikazioa bermatzeko baliabideak eskainiko zaizkie, baita haien aplikazioa eskatuko ere.

4.- Ingurumen eta kultura testuingurutan eta agertuz doazen balio berriei dagokienez, hauexek dira gure erronkak:

- *hizkuntza, ingurumen kultura eta ingurumenarekiko maitasuna adierazi eta transmititzea,*
- *balioak adostu, bermatu eta kritikaz jarrera berriak egokitzea (horretarako, ikastolan lan egiten dugun guztiok balioak adostu eta aurrera eramateko konpromisoa ziurtatuko dugu) eta,*
- *gizartean sortzen diren balio berriei aurrea hartu eta horien aurrean jarrera finkoak gauzatzea.*

VISIÓN de futuro (2014)

1.- He aquí nuestros objetos de examen sobre la evolución demográfica y la demanda del alumnado:

- *renovar la adaptación continua y planificada (presupuesto),*
- *informar sobre nuestro entorno, buscar y dar a conocer nuestras ventajas e*
- *informar sobre nuestra calidad mediante los resultados obtenidos.*

2.- En lo que respecta a la situación de las finanzas del centro y de la institución, nuestra economía es clara y transparente, capaz de gestionar cualquier gasto; sin embargo, hemos de anticiparnos a las necesidades, planificando los presupuestos y las prioridades del uso del dinero; del mismo modo, debemos obtener cuantas más fuentes de ingresos sean posibles.

3.- Preparación y puesta al día del profesorado en torno a la investigación sobre los procesos de enseñanza. A tal efecto, los docentes deben estar reciclados mediante una adecuada planificación, es decir, han de tener en cuenta las necesidades de cara al futuro; por ello, se les proporcionarán recursos que garanticen su actualización y también se les solicitará que la lleven a cabo.

4.- En cuanto al contexto medio ambiental y cultural y a los nuevos valores que van apareciendo, he aquí nuestros desafíos:

- *expresar y transmitir amor hacia la lengua, la cultura y la naturaleza,*
- *consensuar los valores, garantizarlos y adaptar críticamente las nuevas actitudes (para ello, todos quienes trabajamos en la Ikastola garantiremos nuestro compromiso de acordar los valores e impulsarlos), y*
- *anticiparnos a los nuevos valores que van surgiendo en la sociedad y plasmar actitudes firmes ante ellos.*



Ikastolako BALIOAK (Hezkuntza Proiektuan azaltzen direnak)

Hezkuntza integrala garatzeko, edukiak ez ezik, balioak, jokabideak, jarrerak-eta ere kontuan izango ditu Herri Ametsa Ikastolak, ikasle bakoitzaren izate eta nortasuna eratuz joan dadin, atal on araberak:

a.1) Ezagutza eta adimen garapena

- lan diziplinara ohitu; horretarako, adimen-lanaren balorazio positiboa bultzatuz,
- ikasten irakatsiz, ikasteko teknikak bideratu,
- teknika eta baliabide berrietan eguneratu,
- adimen faktore desberdinak garatuz, metodo zientifikoaren oinarriak jarri,
- autonomia eta partaidetasunaren jabetza landu, bakarkako nahiz taldeko lanetarako beharrezkoak baitira,
- errealitateari kritikaz begiratzen irakatsi, gertaerak behatu, aztertu eta arazoak gainditzea norberaren egitekoa dela ulertarazi eta horretara bultzatu,
- ikasle orori dituen adimen-mugak onartzen eta norberaren gaitasunak garatzen lagundu,
- kultur eta jakintza-zaletasuna sortu.

a.2) Balio estetikoaren arloa

Arlo honen helburua sentsibilitatea eta sormena garatzea denez, ondoko esparru hauek ere jorratuko ditu Herri Ametsa Ikastolak:

- edozein arte adierazpen jasotzeko sentsibilitate estetikoa landu eta norberarenak adierazteko oinarriak jarri,
- gorputz oreka eta hezkuntza fisikoa era egokian landu; norbere soinaren eta osasunaren ardurarako ezaupideak eman eta ohitura onak landu (elikadura, higieena...),
- aisialdia egokiro eta askatasunez erabiltzeko, zenbait zaletasun bultzatu: kirola, musika, irakurketa...

a.3) Balio etikoa, gizarteotasuna eta gizarte balioen arloa

Arlo honen helburua Ikastolan nahiz kanpoan ikaslea askatasunez eta zuzentasunez hezi eta egokiro gizarteratzeko giroa eta bitartekoak eskaintzea da. Hori dela eta, Herri Ametsa Ikastola ondokoak lantzen saiatzen da:

- ikaskide, irakasle, zaintzaile, monitore, guraso eta lagunarteko nahiz beste edozeinekiko balioak (laguntasuna, errespetua, tolerantzia eta egiazaletasuna) aintzakotzat hartu eta elkar bizitzan lortzen,

Educación basada en VALORES

Para desarrollar una educación integral, Herri Ametsa Ikastola tendrá en cuenta no únicamente los contenidos, sino también los valores, actitudes, etc., de forma que el ser y la personalidad de cada alumno se vayan formando según los siguientes puntos:

a.1) Desarrollo del conocimiento y de la comprensión

- Acostumbrarse a la disciplina laboral, impulsando a tal efecto la valoración positiva del trabajo intelectual.
- Enseñando a aprender, ejercitando las técnicas de estudio.
- Actualizándose en nuevas tecnologías y recursos.
- Establecer las bases del método científico, desarrollando diversos factores intelectuales.
- Trabajar tanto la autonomía como la participación, al ser necesarias para los trabajos individuales o colectivos.
- Aprender a ver de un modo crítico la realidad, a observar los sucesos, haciendo entender que analizar y superar los problemas es un quehacer de cada cual, e impulsarlo.
- Ayudar a cada alumno a que acepte sus limitaciones y desarrolle sus propias capacidades.
- Crear la afición por la cultura y el saber.

a.2) Ámbito de los valores estéticos

Al ser el objetivo de este ámbito desarrollar la sensibilidad y la creatividad, la Herri Ametsa Ikastola también incidirá en los siguientes apartados:

- trabajar la sensibilidad estética ante una obra artística, así como establecer bases para su propia expresión plástica.
- trabajar adecuadamente el equilibrio corporal y la educación física; proporcionar los conocimientos necesarios para el cuidado del cuerpo y la salud, adquiriendo costumbres saludables (alimentación, higiene...),
- para emplear libre y adecuadamente el ocio, impulsar aficiones sanas: deporte, música, lectura...

a.3) Ámbito de valores éticos, sociabilidad y valores sociales.

El objetivo de este ámbito es ofrecer al alumno el entorno y los recursos necesarios para educarlo en libertad y justicia, tanto dentro como fuera de la Ikastola, e insertarlo adecuadamente en la sociedad. Para ello, Herri Ametsa Ikastola se esforzará por trabajar los siguientes puntos:

- tomar en consideración los valores (ayuda, respeto, tolerancia y sinceridad) hacia los compañeros, docentes, cuidadores, monitores, padres y amigos y conseguir una convivencia positiva,



- elkartasunik eza, zapalkuntza, bortizkeria, injustizia, kontsumismoa eta beste hainbat jarreretikiko kritiko agertzen, bakoitza ahal duen neurrian aldatzen ahalegin dadin,
- norberak duen askatasun eskubidearen aurrean, norbanakoa mugatzen jakin eta, era berean, inguruko oren askatasunarekiko jokabide arduratsuak lantzen,
- kontzientzia askatasuna oinarritzko eskubidetzat hartuz, joera politiko guztiak onartuz, elkarri ideia politikoak agertzeko eta errespetuz defendatzeko eskubidea bermatzen; ildo berean, erlijio gaia pluralismo oinarriaren arabera egituratzen,
- erlijioak gure gizartea ulertzeko duen garrantziaz jabeturik, ahal diren maila guztietan Erlijio Kultura gaia geure curriculumetan txertatzen,
- jokabide konpetitiboak ahal den neurrian ahulduz, elkar laguntzan hezi eta elkarbizitza baketsurako bidea jorratzen,
- euskal hiritar izateak eskatzen duen Euskal Herriarekiko begirune eta erantzukizunez bizitzen eta jokatzeko,
- hezkidetzan hezten, hau da, neskak eta mutilak eskubide eta egoera berberetara ohitu eta elkarren arteko errespetuzko jarrerak ziurtatzen,
- Jasangarritasun inguruko hausnarketa egiten, ingurumen osasuntsu bat bultzatzen, inguruko giza-aniztasuna eta biodibertsitatea aberasgarritzat jotzen.
- gizarte aldakor honetan sortzen diren balio berrien aurrean, hausnarketa ireki eta kritikoa sustatzen, jarrera positiboak bultzatzeko.

- mostrarse crítico ante la insolidaridad, la opresión, la violencia, la injusticia, el consumismo y otras tantas actitudes, de forma que cada cual se esfuerce, en la medida que pueda, por cambiar las situaciones.
- ante el derecho personal a la libertad, saber delimitar la individual y, del mismo modo, trabajar comportamientos responsables para con la libertad de los demás,
- garantizar el derecho a expresar las propias ideas políticas ante los demás y defenderlas con respeto, considerando la libertad de conciencia como derecho fundamental y aceptando todas las tendencias políticas; del mismo modo, plantear el tema religioso en base al pluralismo,
- insertar la cultura religiosa en nuestros currículos, a ser posible en todos los niveles, teniendo en cuenta su importancia a la hora de entender nuestra sociedad,
- trabajar el camino para la convivencia pacífica y educar en la cooperación, evitando los comportamientos competitivos en la medida de lo posible,
- vivir y actuar respetando a Euskal Herria, con la responsabilidad que requiere ser ciudadano vasco,
- educar en la coeducación, es decir, acostumbrar a ambos sexos a los mismos derechos y situaciones, y garantizar mutuas actitudes de respeto,
- Reflexionando sobre la sostenibilidad ambiental, ayudando a crear un ambiente sano y saludable y tomando como enriquecedor la pluralidad y biodiversidad.
- fomentar la reflexión abierta y crítica, a fin de impulsar actitudes positivas ante los nuevos valores que aparecen en nuestra cambiante sociedad.



ESTRATEGI PLANA 2013-2016:

ILDO ESTRATEGIKOAK

1.- ERAKUNDEAREN PLANTEAMENDUAK

- 1.1 KEI akreditazioaren aseguramendua lortzea.
- 1.2 Euskal hezkuntzaren erreferente bat izatea.
- 1.3 Ikastolaren irudia eta eskaintza sendotzea, matrikulazio egonkorra bermatuz.

2.- ANTOLAKUNTZA EGITURAK:

- 2.1 Giza baliabideak aurreikusiz, mapa diseinatzea.

3.- ELKARBIZITZA:

- 3.1 Ikasleak bizikidetzaren begirunean heztea.

4.- TUTORETZA ETA ORIENTAZIOA:

- 4.1 Ikasleen aniztasunari erantzuteko ikastola inklusiboa egituratzea.

5.- CURRICULUMA

- 5.1 Hizkuntzen irakaskuntza eta erabilerari dagozkien alderdiak era integralean biltzea eta hizkuntzen trataerari koherentzia ematea.
- 5.2 Ikastolen elkarteko EKI proiektua bultzatzea.
- 5.3 Komunikazioa kompetentzia garatuz ikasle euskaldun eleanitzak heztea.

6.- FAMILIA ETA INGURUA:

- 6.1 Hezkuntza komunitate osoaren partaidetza bultzatzea.

7.- ADMINISTRAZIOA ETA ZERBITZUAK:

- 7.1 Egonkortasun ekonomiko bat emango duen gestio gardena burutzea.
- 7.2 Inbertsioak planifikatu eta gauzatzea.

PLAN ESTRATÉGICO 2013-2016:

LÍNEAS ESTRATÉGICAS

1.- PLANTEAMIENTOS INSTITUCIONALES

- 1.1 Lograr la renovación de la acreditación del PCI.
- 1.2 Ser un referente de la educación euskaldun.
- 1.3 Reforzar la imagen y la oferta de la ikastola, garantizando una matriculación estable.

2.- ESTRUCTURAS ORGANIZATIVAS:

- 2.2 Diseñar la organización del centro, teniendo en cuenta los recursos humanos.

3.- CONVIVENCIA:

- 3.2 Educar a los alumnos/as en valores de convivencia.

4.- TUTORÍA Y ORIENTACIÓN:

- 4.2 Crear una ikastola inclusiva para dar respuesta a la diversidad del alumnado.

5.- CURRÍCULUM

- 5.4 Dar coherencia y tratamiento integral a la enseñanza y uso de los distintos idiomas.
- 5.5 Implementar el proyecto EKI en la ikastola.
- 5.6 Desarrollar la competencia lingüística para educar a alumnos euskaldunes y plurilingües.

6.- LA FAMILIA Y EL ENTORNO:

- 6.2 Impulsar la participación de toda la comunidad escolar.

7.- ADMINISTRACIÓN Y SERVICIOS:

- 7.3 Realizar una gestión transparente que de una estabilidad económica.
- 7.4 Planificar y realizar las inversiones

